

MEMORIAREN EDUKIA

Gutxienez eduki hau izan behar du:

1.- Azala: enpresaren logoa eta, orri-oinean, izena, helbidea, helbide elektronikoa, telefono-zenbakia eta abar.

2- Aurkibidea.

3.- Enpresaren identifikazioa: titularren datuak, erabiltzailea, kokalekua eta abar.

4.- Aplikatu beharreko araudia: 809/2021 Errege Dekretua, 709/2015 Errege Dekretua eta 560/2010 Errege Dekretua.

4.- Xedea: instalazioa legeztatzea, eta hemen justifikatzea gehieneko zerbitzu-presioa (*PMS*) x bolumena (V) dela 25.000 bar/litrotik beherakoa.

5.- Instalazioaren deskribapen orokorra eta ezaugarri orokorrak:

- Presio-ekipoen eta -instalazioen identifikaziorako datuak eta ezaugarri nagusiak: unitate-kopurua, marka, modeloa, serie-zenbakia, fabrikazio-urtea, fluidoa, gehieneko presioa, bolumena, emaria, kategoria, taldea eta beste edozein parametro nagusi.
- Segurtasun-elementuen eta -neurrien ezaugarriak.
- Instalazioaren krokisa.
- Instalazioaren printzipio-eskema, instalatzaileak sinatua, garbi adierazita zein diren presio-ekipoak eta non dauden segurtasun-osagarriak. Funtzionamenduari lotutako parametro nagusiak adierazi behar dira (presioa eta tenperatura, besteak beste).

6.- Aldizkako proben eta ikuskapenen daten zerrenda, presio-ekipo bakoitzeko adierazita jada egindako ikuskapenen datak eta etorkizunean eginen direnenak, hiru mailetako ikuskapen motak jasoaz (A, B eta C).

7.- Planoak:

- Instalazioa edo establezimendua non dagoen adierazten duen planoak, erreferentzia aldaezinak adierazita (UTM koordenatuak, ETRS89 *datuma*) eta eskala, gutxi gorabehera, 1/10.000 eta 1/50.000 bitartekoa.
- Instalazioak kokalekuan duen kokapenaren planoak, honako hauek adierazita: dimentsio orokorrak, ekipo nagusien kokapena eta, hala badagokio, beste arrisku batzuekiko distantziak.

8.- Sinadura eta data.